

## Ekintzaileari laguntzeko nafar sarea

[Nafarroako Enplegu Zerbitzuak](#) [Nafarroako 2017-2019 II. Ekintzaitza Plan](#)aren barranean bultzatu du *Ekintzaitzari laguntzeko nafar sarea*, zeinaren helburua baita ekintzaileei informazioa, aholkularitza eta orientazioa ematea modu egoki, eraginkor eta homogeneoan, enpresa berrien eta enpleguaren sorrera sustatzeko; hori dena, bere agenteen jarduera koordinatuen bitartez. [navarraemprende.com](#) atarian biltzen da *Ekintzaitzari laguntzeko nafar sarearen* eskaintza; bertan ikus daitezke Sareak ekintzaile eta enpresa guztien eta, oro har, gizartearen eskura jartzen dituen zerbitzuak.

Honako hauek dira *Ekintzaitzari laguntzeko nafar sarearen* helburuak:

? Erreferentzia izatea, Nafarroan, enpresa-proiektu bat abian jarri nahi luketen ekintzaileentzat.

? Gaur egun dauden baliabideak optimizatzea eta ekintzaileei eskaintzen zaizkien zerbitzuen kalitatea hobetzea.

? Sareko kide diren entitateen arteko koordinazioa handitzea.

Bi motatako entitateak sarturik daude Sarean: bazkide nagusiak eta entitate laguntzaileak. Sareko kideak ezagutu nahi badituzu, egizu klik [esteka honetan](#).